

12. ikasgaia.

AKZIO ESKUBIDEA: KONTZEPTUA

1. Pertsonen egoera juridikoak jurisdikzioari dagokionez

Akzio-eskubidearen beharra

2. Akzioaren sorkuntza modernoan abiapuntua

Zuzenbide Prozesalaren bilakaerarekin lotuta

Teoria multzo bi:

- Teoria zehatzak
- Teoria abstraktuak

3. Teoria zehatzak: akzioa tutela jurisdikzional zehatza lortzeko eskubide gisa

Kontzeptua: eskubide materialekin lotuta

Kritikak:

- Akzio-eskubidea ez izatea eta epaitegietara jotzea posiblea ote?
- Ordena penalik ez
- Eta interes zehaztugabeak?

4. Akzioa jarduera jurisdikzionalaren eskubide gisa (teoria abstraktoak)

5. Akzio-eskubidea gaur egun

Formen legezkotasunez

Konstituzioak akzio-eskubideari buruz dituen artikuluak

Konstituzioaren 24.1 artikuluko babes judizial eraginkorra lortzeko eskubidea

Akzio-eskubidearen edukia

6. Babes judizial eraginkorra lortzeko oinarrizko eskubidea: edukia eta babes-bideak

Titularrak

Babes eraginkorra lortzeko eskubidearen edukia:

- Ebazpen zioduna jasotzeko eskubidea
- Helegitea jartzeko eskubidea (legezkoa)
- Ebazpen judizialak betearazteko eskubidea. Betearazpen generikoa

1. PERTSONEN EGOERA JURIDIKOAK JURISDIKZIOARI DAGOKIONEZ

Aurreko ikasgaietan esan genuen Estatuak bere gain hartzen duela gatazkak konpontzeko monopolioa; horrek Estatuak behartzen du bi gauza egitera:

- Gatazka horiek konpontzeko berariazko organo batzuk sortzea behartuta dago, epaitegi eta auzitegiak, alegia.
- Estatuak bermatu behar du, Epaitegiak munduan -epaitegietatik kanpo- gertatutako gatazka horien berri izatera ailegatuko direla, hau da, jurisdikzioak gatazkak ebatziko dituela ahalbidetu behar du Estatuak.

Aipatutakoa erdiesteko asmoz, **akzio-eskubidea** sortzen da. Akzio-eskubidearen bidez gatazkaren bat sortzen baldin bada, Estatuak bermatzen digu organo jurisdikzionalekin harremanetan jarri ahal izango garela, haiek gatazka ebatz dezaten. Ondoren, harreman horretatik, beste harreman batzuk eratorri edo sortuko dira: beste prozesuko alderdiekin sortzen den harremana, idazkari judizialarekin, abokatuarekin, prokuradorearekin, eta abar; baina garrantzitsuena aurrenekoa da, hau da, akzio-eskubidea egikaritzetik sortzen den harremana.

2. AKZIOAREN SORKUNTZA MODERNOEN ABIAPUNTUA

Esan bezala, Estatuak hiritarrei auzitegietara joaten utzi eta ahalbidetu behar dielako sortzen da akzio-eskubidea. Horrenbestez, eskubide bat urratzen bada, edo eskubide bat zalantzan jartzen bada, Estatuak epaitegietara jotzeko bidea erraztu behar die eskubide horien titularrei.

Akzio-eskubidearen bilakaera historikoari buruz esan genezake **Zuzenbide Prozesalaren bilakaerarekin lotuta**, edo, hobeto esanda, Zuzenbide Prozesalaren garapena akzio-eskubidearenaren atzetik joan dela. Izan ere, akzio-eskubidea eskubide subjektiboetatik banatu zenean, eskubide

hori egikaritzeko formak berariazko arautegi bat galdatu zuen, eta, horrekin batera, zuzenbide materialetik bereizitako prozesuak zehazteko beharra ere.

Akzio-eskubidearen bilakaera historikoari dagokienez, horri buruz izan diren **teoria guztiak bi talde** handitan koka ditzakegu: alde batetik, teoria zehatzak eta, bestetik, teoria abstraktuak, hurrengo galderetan azalduko ditugun moduan.

3. TEORIA ZEHATZAK: AKZIOA TUTELA JURISDIKZIONAL ZEHATZA LORTZEKO ESKUBIDE GISA.

Teoria horien arabera, akzio-eskubidea tutela jurisdikzional zehatza lortzeko eskubidea zen; hau da, pertsonen tutela jurisdikzionala eskuratzeko asmoz, auzitegietara jotzea ahalbidetzen dien eskubidea izango da, baina –eta hori da azpimarragarriena- **eskubide subjektibo materialen zati gisa hartuta**. Beraz, akzio-eskubide hori kasu bakoitzari zegokion eskubide subjektibo-material baten ahalmena baino ez zen. Ikus daitekeenez, teoria horiek eratu zirenean, akzio-eskubidea artean ez zegoen eskubide subjektibo-materialetatik banatuta.

Adibide batekin ulergarriago irudituko zaigu azaldu berri duguna: demagun etxe bat dugula, hau da, etxe horren gaineko jabetza-eskubidea dugula. Teoria horien arabera, etxearekin lotuta dagoen zerbait salatu nahi izanez gero –norbaitek jabetza hori kendu nahi digulako, esaterako-, epaitegietara joango gara, eta, hori eginez, jabetza-eskubidea egikaritzeko dugu -jabetza eskubidearen barruan dagoen “zati” bat, noski-. Hau da, guk dugun eskubide bakarra jabetza da, epaitegietara jotzen uzten digun beste eskubide independenterik ez dugulako.

Horrela azalduta, eta teoria horiek diotena ikasi ondoren, hainbat **kritika** egin diezazkiekegu:

- Epaitegietara jo ondoren kontrako epaia jasoz gero -hau da, gure eskubide material hori ukatzen duen epaia jasotzen badugu (ikusitako adibidean etxearen jabetza kentzen badigute)-, auzitegietara jotzeko eskubide hori jada egikaritu dugu eta, ondorioz, teoria horrek ezingo luke eskubide horren existentzia eza justifikatu. Hots, guk jabetza-

eskubiderik ez genuela adierazi digu ebazpenak, eta, epaitegietara jotzeko eskubidea (akzio-eskubidea) jabetza-eskubidearen barruan badago, ez genuen benetako akzio-eskubiderik; hala ere, epaitegietara jo dugu. Ukaezina da horrek kontraesana dakarrela - **akzio-eskubidea ez izatea eta epaitegietara jotzea** -.

- Akzioa eskubide pribatuen zatitzat hartzen da soilik; baina zer gertatzen da titulartasun pribatukoak ez diren eskubideekin? (zuzenbide penalarrekin, esaterako). Teoria zehatzek **ez dute ordena jurisdikzional penala** azaltzen.
- Gainera, teoria horiek **zehaztugabeko interesekin** (kontsumitzaileen interesekin, adibidez) zer gertatzen den ere ez digute azaltzen, interes horien atzean ez baitago auzitegien aurrean egikari litekeen eskubide subjektibo zehatzik.

Ondorioz, teoria horiek oso mugatuak direla esan dezakegu, nolabait aldeko epaia jasotzean oinarritzen direlako; hau da, eskubide zehatz bat izatearen menpean egongo litzateke akzio-eskubidea. Hori dela eta, eta teoria horien mugak gainditzeko asmotan, doktrinak beste teoria batzuk jorratu zituen, teoria abstraktuak deritzenak. Azken horiek, ikusiko dugun moduan, akzio-eskubidearen autonomia aldarrikatuko dute.

4. AKZIOA JARDUERA JURISDIKZIONALAREN ESKUBIDE GISA (TEORIA ABSTRAKTOAK)

Teoria horien arabera, akzio-eskubidea berez ez dago ebazpen jurisdikzionalarekin lotuta; hau da, ez du inongo menpekotasunik izango prozesuko epaiarekin, independenteak dira.

Beraz, alde batetik, eskubide materiala dugu, eta, bestalde, akzio-eskubidea, pertsona guztiei epaitegietara jotzen uzten diena.

AKZIO ESKUBIDEA-----AUZITEGIEN JARDUERA

AKZIO ESKUBIDEA + ESKUBIDE SUBJEKTIBOAREN TITULARTASUNA-- AUZITEGIEN JARDUERA + ALDEKO EBAZPENA

Horrenbestez, akzio-eskubideari ez dio ardura epaiaren edukiak, hori eskubidearen titulartasunarekin lotuta baitago; akzio-eskubidea jarduera jurisdikzionala abian jartzeko aukera ematen digun eskubidea da. Hala, auzitegien jardueraren eta eskubide subjektibo-materialaren existentziaren arteko independentzia erdiesten da, eta, horrekin batera, Zuzenbide Prozesala zuzenbide pribatutik bereiztea lortzen da.

5. AKZIO ESKUBIDEA GAUR EGUN

Arestian ikusi dugunez, akzio-eskubideak auzitegien jarduera martxan jartzeko aukera hori dakar, eta, gero, prozesua bukatutakoan -epaia ematean-, eskaera hori oinarrituta zegoen ala ez jakingo da. Dena dela, epaitegiak martxan jartzeko, ukaezina da haien aurrean zerbait eskatu beharra dagoela, baina eskaera horren oinarria epaian ebatziko da eta, beraz, auzitegien jarduera dagoeneko lortuko dugu.

Akzio-eskubidea egikaritu ahal izateko, legeak ezarritako formak errespetatu behar ditugu; hau da, **formen legaltasunez** egikaritu behar dugu akzio-eskubidea; esaterako, prozesu-gaitasuna edo prozedura egokiari buruzko gaietan, alderdiek legeek dioten moduan jokatu behar dute (PZLaren 1. art.).

Espainiako legerian, eta, batez ere, haren arau gorenean, badaude akzio-eskubidea bermatu nahi duten artikulua batzuk; artikulua horiek auzitegietara jotzeko eskubidea bermatu nahi dute, eta, haien artean, babes edo tutela judizial eraginkorra lortzeko eskubidea dira garrantzitsuenak.

Ikus ditzagun **Konstituzioan** akzio-eskubideari buruz mintzatzen diren artikulua:

- 53.2. artikulua: oinarrizko eskubide eta askatasunei buruz hitz egiten du horrek, eta edozein hiritarrek bere oinarrizko eskubideak babesteko auzitegietara jo dezakeela xedatzen du. Oso aukera zabala da, hau da, edonork egikari dezake; beste legedi batzuetan, aldiz, murriztagoa da.

- 119. artikulua: justiziaren doakotasuna aldarrikatzen da, denok akzio-eskubidea egikaritu ahal izateko, gure egoera ekonomikoak garrantzirik izan gabe.
- 125. artikulua: herri-akzioa aipatzen da artikulua horretan; horrek ahalbidetzen du prozesu penalean edozein hiritar alderdi akusatzaile gisa aurkeztea, Ministerio Fiskala eta biktimarekin batera. Berrito ere, esan behar dugu legegileek aukerarik zabalena hartu duela.
- 124. artikulua: Ministerio Fiskalari buruz mintzatzen da, eta adierazten du horrek justiziaren jardura bultzatu behar duela. Batzuetan, Ministerio Fiskalak akzio-eskubidea egikaritutako du pertsona batzuen ordez, ezgai edo babesgabeen ordez, esaterako.
- 162. artikulua: babes eskeko helegitea jartzeko legitimatuak aipatzen dira, eta xedatzen da interes legitimo bat aldarrikatzen duen edonor izan daitekeela.

Halaber, Konstituziotik at, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 7.3. artikulua ere aipatu beharra dago, han akzio-eskubidea egikaritzeko elkarteak, korporazioen eta taldeen legitimazioa onartzen baita.

Aipatutako artikulua guztiak akzio-eskubidearekin lotuta daude. Gainera, Konstituzioaren 24.1. artikulua **babes eraginkorra lortzeko eskubidea** aldarrikatzen du, eta horrek ere akzio-eskubidearekiko lotura du.

Hori kontuan hartuta, akzio-eskubidearen **edukia** honako hau dela ondoriozta daiteke:

- Alde batetik, prozesu bat abian jartzeko eskubidea.
- Eta, bestetik, prozesu horretan babes eraginkorra lortzeko eskubidea. Babes eraginkorra lortzeak ez du gure aldeko epaia lortzea esan nahi, auziaren mamia aztertzen duen ziodun epai bat lortzea baizik.

Jarraian aztertuko dugu hori.

6. BABES JUDIZIAL ERAGINKORRA LORTZEKO OINARRIZKO ESKUBIDEA: EDUKIA ETA BABES BIDEAK

Akzio-eskubideari buruz hitz egiten jarraituko dugu, eta babes eraginkorra berarekin lotuta dagoen heinean, biei buruz mintzatuko gara. Ondorio gisa, eta Konstituzioko 24.1. artikulua aitortzen duen babes eraginkorra izateko eskubidea oinarrizko eskubidea den neurrian, akzio-eskubidea urratuko balitz, Konstituzio Auzitegiaren aurrean babes eskeko helegitea jartzeko aukera izango genuke.

Titularrei begira, bai espainiarrak bai atzerritarrak, pertsona fisiko zein juridikoak izango gara akzio-eskubidearen titularrak. Izan ere, Konstituzioaren 24. artikuluan aldarrikatzen da “pertsona guztiek” babes judizial eraginkorra lortzeko eskubidea izango dutela.

Gatazken inguruan, esan daiteke garrantzitsuena gatazka horiei buruzko kontrol judiziala egotea dela, kontrol mota horrek berme gehien dituen kontrol-mota delako. Horri buruz, Konstituzio Auzitegiak esaten du prozesuak zuzenak izateko berme guztiekin egin behar direla (berme horiek zehazki zein diren jakiteko, Konstituzioaren 24.2. artikulura jo behar dugu). Akzio-eskubidearen bitartez, beraz, berme horiek betetzen dituen prozesua lortu nahi da, epaitegietara joz; hau da, akzio-eskubidearen bidez babes judizial eraginkorra lortzea bilatzen da, eta azken horren edukia zein den aztertzen hasiko gara orain:

Lehenengoz, eta esan bezala, babes judizial eraginkorra izateko eskubideak bere gain hartzen du auzitegiek auziaren mamiari buruzko ebazpena eman behar izatea, eta, hala, gatazka amaitutzat joko da ikuspuntu juridikotik. Ebazpenak ez du onuragarria izan behar, baina mamiari buruz erabakitzea funtsezkoa da.

Ebazpen horrek **zioduna** izan beharko du; hau da, epaian, epaileak ebazpena oinarritzen duten egintzak eta oinarri juridikoak azaldu beharko ditu. Gainera, epaileak azaldutako motibazio edo zio horiek ulergarriak izango dira

eta bat etorriko dira, Konstituzioaren 24.1 eta 120.3 artikuluek (“ebazpenak ziodunak izango dira eta audientzia publikoan emango dira”) xedatzen duten bezala.

Hala eta guztiz ere, auziaren mamia ebatzi ahal izateko, lehengo eta behin prozesua era egokian burutu behar izan da, hau da, lege prozesalek aurreikusitako baldintza eta oinarri guztiak errespetatuz, lehenago azpimarratu dugun bezala (prozesua “formen legezkotasunez” burutu beharra dagoela).

Helegiteak jartzeko eskubidea dakar eskubidearen bigarren edukia. Bigarren iritzi bat entzuteko eskubidea da: lehendabiziko auzialdiak emandako ebazpenaren ostean, helegite bat jar daiteke, eta helegite hori beste organo juridikzional batek ebatziko du (hala, auzia birritan aztertuko dute).

Nolanahi ere, helegitearen eskubide hori **legezkoa** da; hots, helegite bat aurkeztu ahal izateko, legeek aurretiaz aurreikusi behar dute, eta, horrela egin ezean, ez da helegiterik jartzeko aukerarik egongo. Prozesu penalarri dagokionez, zehaztapen bat egin behar da, “eskubide zibil eta politikoen nazioarteko hitzarmenak” aldarrikatzen baitu kondenatua den edozein pertsonak goiko auzitegi baten aurrean helegitea jartzeko aukera duela (hori dela eta, BJLOaren azken aldaketarekin, Auzitegi Nazionalaren ebazpenen aurka helegite jarri ahal izateko, Apelazio-Gela eratu da; eta Justizia Auzitegi Nagusia Auzitegi Probintzialen ebazpenen aurka aurkeztutako apelazioak ebazteaz arduratzen dira).

3. edukia **ebazpen judizialak betearazteko eskubidea** dugu. Kondenatuak bere borondatez epaiaren edukia betetzen badu, babes eraginkorra bermatu egiten da; baina baliteke kondenatuak edukia bete nahi ez izatea, eta horrek babes eraginkorra urratzea ekarriko luke. Hori dela-eta, epaiak betearazteko eskubidea dugu.

Betearazteari buruz hitz egiten denean, ez gara betearazte zehatz bati buruz mintzatzen ari. Horrekin esan nahi da batzuetan betearazte zehatza aurrera eramatea ezinezkoa izango dela (adibidez lapurtutakoa itzultzea, desagertu egin delako edo lapurrak saldu egin duelako; baina, haren ordeaz, diru-munta bat emango da); horrexegatik esaten da **betearazpena generikoa** dela.

Ikasgaia bukatzeko, nabarmendu beharra dago babes judizial eraginkorra lortzeko batzuetan oztopoak topa ditzakegula, adibidez, justizia lortzea edo epaitegietara jotzea garestia baita. Hori aintzat hartuta, egoera ekonomiko larrian dauden alderdien kasuetan, baliteke prozesuko kostuei aurre egin ezin izatea, eta esan dezakegu momentu horietan ez dela babes eraginkorra lortzeko eskubiderik bermatzen. Gainera, horrek berdintasun-printzipioa urratzea ekarriko luke, epaitegietara jotzeko benetako aukera batzuek bakarrik - dirudunek, hain zuzen ere- soilik izango bailukete. Hori gerta ez dadin, doako laguntza juridikoaren eskubidea aurreikusten da; hurrengo ikasgaietan aztertuko dugu eskubide hori.